

Beste musikari batzuk

Marisol Alcaiaaga Garmendia.

- Zaldibian jaio zen, 1952/06/24an.
- Ikasketak Zaldibian, Ordizian eta Bergarako UNEDen egin zituen; Zuzenbidean diplomatua da.
- Zaldibian Manuel Etxeberriarekin hasi zen solfeoa ikasten, pianoa Ordiziako Anarekin, eta, gero, Beasaingo Musika Eskolan jarraitu zuen; harmonia ere hor ikasi zuen.
- Gitarra Ordiziako Errondailako Anarekin ikasi zuen.
- Etxean eta herriko zenbait ekitalditan jotzen du.
- Lanbidez Zaldibiako eta Gaintzako udaletako Idazkari Kontu-hartzailea da.

Aurelio Sáez López “Yerri”

- Palencian jaio zen, 1956/08/20an.
- Kantaria da. Bere kabuz ikasi zuen kantatzen.
- 14 urterekin hasi zen kantatzen Veracruz orkestran.
- Talde askorekin aritu da kantari moduan: Ordiziako Lagunak taldearekin, Suhar taldearekin, Zapotxin taldearekin, Basakabi taldearekin.
- Legazpiko Arrasto taldearekin kantatzen du azken aldian.

Daniel Beloki Etxeberria

- Zaldibian jaio zen, 1958/05/04ean.
- 16 urterekin, soinu txikia erostera joan ziren Donostiara, baina ez zegoenez eta enkargatu behar zuten, pianozkoa erosi zuen.
- Ordiziako Aierberekin ikasi zuen solfeoa eta soinua ikasten ere harekin hasi zen.
- Gero, gitarra jotzen ikasi zuen eta ahoko soinua jotzen ere bai.
- 18 urterekin, Xeto eta biak hasi ziren gitarra jo eta kantatzen.
- Geroago, taldean aritu ziren jotzen, Txubele kantatu eta Martzelinok gitarra jotzen zuen. Abaltzisketan jaialdi batean parte hartu zuten Gorka Kenerrekin batera.
- Herrietako festa eta afarietan ibiliak dira gitarra eta soinuarekin. Oraindik hilero entseguak eginez jarraitzen dute.

Jose M^a Garmendia Murua (Xeto)

- Zaldibian jaio zen, 1958/11/01ean.
- Gitarra eta ahoko soinua jotzen bere kabuz ikasi zuen.
- Trikitixa ikasten ere hasi zen Martinekin, baina soinua alderantziz hartu behar zuen, eskuinarekin baxuak jotzeko (eskuineko eskuko hatz batzuk falta ditu), eta arazo handiak izan zituen. Gero, Tapiarekin hasi nahi izan zuen ikasten, baina hura hil egin zen, eta horregatik utzi zuen soinua.
- SUHAR taldeko kidea izan da, berbenetan ibiltzen ziren, taldekide bat (Xanti Saez) hil zen arte.
- Danielekin batera aritu da gitarra jotzen eta kantatzen. Oraindik hilero entseguak eginez jarraitzen dute.

Iñigo Apaolaza Apaolaza

- Beasainen jaio zen, 1959/08/13an.
- Kontrabaxua ikasi zuen Beasaingo Musika Eskolan.
- Zaldibiako taldeetan aritu zen baxua jotzen:
 - o Laukotearekin.

- o Suhar taldearekin.
- o Eta geroago, Arrano Beltza taldearekin eta Drindots taldea izango zenarekin.

Xanti Sáez López

- Palencian jaio zen, 1959/09/13an.
- Zaldibian hil zen, 1982/05/27an.
- Bere kabuz ikasi zuen bateria jotzen.
- Zaldibiako Suhar taldearekin jo zuen bateria.

Martzelino Garmendia Murua (Martxel)

- Zaldibian jaio zen, 1961/10/01ean.
- Solfeoa Zaldibian ikasi zuen Xalbador Garmendiarekin eta gitarra ere Zaldibian ikasi zuen, Tolosatik etortzen zen irakasle batekin.
- Zaldibiako taldeetan jo zuen gitarra:
 - o Laukotearekin.
 - o Suhar taldearekin.
 - o Zapotxin taldearekin.

Oneka Garmendia Irastortza

- Zaldibian jaio zen, 1968/11/02an.
- Musika ikasketak egiten Zaldibian hasi zen, Arantxa Etxeberriarekin; gero, Ordiziako Musika Eskolan, Donostiako kontserbatorioan eta Beasaingo Musika Eskolan jarraitu zuen. Esku-soinuarekin hasi zen, baina zeharkako txirularekin amaitu zuen musika karrera.
- Musika irakasle izan da Legorretan, Zaldibiako ikastolan, eta Ordiziako Musika Eskolan dihardu (Legorreta, Idiazabal... eskualdea hartzen baitu).
- Ordiziako Oroitz abesbatzaren hasieran parte hartu zuen, eta azkeneko 10 bat urtetan, Pirritx eta Porrotx pailazoekin parte hartu du, grabazioetarako haurrak prestatzen.
- Herrian, Gabon kantak (bereziak) prestatzen ditu, beste kide batzuekin batera.
- Niko Etxartekin ere parte hartu zuen grabazio batean.
- Zaldibiako haurrekin eta pailazoekin “Korrika Txikiren” kantua prestatu zuen.